

URTE BELTZA

Haserre ginen gipuzkoarrek, euskara baturako hilbeltzaren ordez urtarilla aukeratu zizugenean. Baina haur bat nahi ez duenak bixiak izaten omen ditu. Guri ere horixe gertatu zaigu. Dirudie-nez, ez da urtarilla bakarrik izango hilbeltza. Hil guztiak izango dira, dirudie-nez, hilbeltzak. 1974garrengo urte osoa izango omen da Urtebeltza.

Ez gara, beraz, hilbeltzetik aterako. Bizitzak batu gaitu esgaldunok. Ez dugu ez marxtorik eta ez epaillarik, ez apirillarik eta ez jorrailik, ez maiatarik eta ez lorailarik, ez abuzturik eta ez dagonillik.

Ez dute besterik merezi gure setakeriek, kaskagorakeriek, nor-keriek eta zatikeriek. Eguzkiak urtzen duen bezalaxe, euri jakas bideka urratzen eta ebakitzen duen bezalaxe gu ere urtu, urratu eta etakiko gaitu bizitzak. Ezerez eta huts bihurtzen garenean geldituko gara baturik.

Badugu eskarmenturik, baina ez gara esmatzen eta zentzutzen.

Urtebeltza, 1974garrengo urtea.

Nahiko ubeldu izan du igaro dugunak ere. Ez da hain zuria izan. Erruz garestitu da bizimodua. Lan-oporketak ugari gertatu dira. Izan ere izorturik bait zenden lansariak. Odolgorritu da euskal lurra behin baino gehiagotan.

Zeru sapaia ez dago urdin. Ez dago oskarbi. Hodei beltz kan-kerrek estalia dute artzari. "Itxasoa laino dago Baiako barraino". Zein baino zein beltzago eta haundiago diren lanoak pi-latu dira ortzian mendiak antzo. Hodei beltz haserreak, astunak eta lodiak.

Petrolio hutsuan, lehengo urtean baino 600 milioi dolar gehi-ago bota beharko da aurtengoan. Udaldian kanpotarrek ekarri ohi zuten diru iturrira agortu daiteke. Europaruntz lan bila joateko asmoz dauden 100 mila lagun geratuko dira ez zerurako eta ez hurrerako. Alemanian bezala beste naziotan atak ixten bazaiz-kiote. Bestalde, zer sal daiteke hemendik kanpora, Europako Es-taduek nahiko lanak baldin badituzte eta aski aserik badaude? Adiskideak adiskide, nahiko neurtua, urritua eta garestitua jaso-ko dugu Arabecengandik petrolio.

Bizimodua garestituko da itxuragabe, lanik eza ugalduko, lan-sariak izotzuko. Hitz batean, nahiko ezin bizia sortuko.

Urtebeltzak ekaitza dakar, erauntsia, trumoi, txibist eta ostoa. Ez gara igarile. Hobe egia gertatuko ez balitz guk iragartzen duguna. Guk ere bildur diogu gerrikoa estutu beharrari. Lehen ere nahiko estuturik dugu.

Halere, ez dugu itxaropenik galtzen. Lano haserreak ez dira baretzen eta astunak ez dira arintzen eta trumoi, tximist, ostas-ak ez dira isiltzen eta itzaltzen ebia suikla egiten ez duen bi-tartean.

Orduan bakarrik da ortzia oskarbitzen eta zeru sapaia urdin-tzen.

Urte beltzak igaro eta jasan behar ditugu nahitaez urte zu-riak, baketsuak eta joriak lor ditzagun.

Zorionak Urtebeltz! Zuzetat gure ongi etorriak arretatsuen-a, zure baitan eta altxoan bait da Urteuzuri.

Bihozkadaz ari

Gisa da, Norik bere mundua ikus-ten du, eta ez besterik: «Cada cual ve...». Intelektualak ideiak errep-aratzen ditu, eta aisenik ideien mail-an moztuzten. Ekintza-gizona, ber-ritz, ekintzaren; eta ideien maila-ko xehetasunak maiz itzurtzen. Berezke eta hori jakina da.

Hitz batez, euskal atsotitz za-harrak egia zuten, eta egia du ora-indik: «Aharra ziten altxonak, ager ziten gazna ohonak». Alegia, ar-tzainak haserretzen direlarik, lais-ter agertzen direla bertara lapur-tutako gaztak; hau da, artzaingo-aren gorabeherek eta istiluak.

Gure artean guztiz da nabarme-na joera hori; eta hemen, noski, izenik eta ezagugarri zehatzik eman ez arren, berehala sumatuko du irakurleak, nik uste, nortaz ari nau-zuen.

Mutur batetan, jakina, intelektual «hutsak» (?) daude. Hauen jokabi-dene ageri denez, arrisku bakar bat dago: ideien mailakoa. Lapitza gor-ria eskuetan, inor ez da libratzen, eta inor ez bide da libratuko: den-ak (denok hobe) oker eta gaizki, denok behar ez den moduan eta alderdian, denok surlarako on. Be-rak bakarrik omen da zentzuz. In-ki-sizioak berak ez zuten eskomiku horiek bezain maiz eta lasai era-bili. Alajainkoa! Ideien mailako xe-herkia bat, ideien mailako hanka sartzte bat, ideien mailan esaldi ilunsko bat, eta aski dute: errotik erauzi behar gizona edo emaku-mea, osotara ukatu behar haren lan osoa, gosta ala gostarik ze-haro galdu eta desegin arte ba-kerik ez. Gero... zail Super «in-tektual» horien artean guruzada-giro gaitza dago; baina guruzada-igitaioak ideien mailan erabiltzen dira, sekula ez estrategiaren mailan, sekula ez jokabideen mailan; guz burruka ideietabaida hutsa baitz bezalaxe. Super-intelektualok, horrela, baita marxismoa edo marx-ismoaren alde mitomatzen direnean ere, «burgesiariarik gogorrean gelditzen dira».

Gaur gure herrian, jakina denez, «nahasketa» izugarria omen dago ideien mailan, nahiz nahasketa hitz hori oso desegokia izan. Utopiarik nabarmenenak urregorritaz harre-

razten dira gure artean, eta ma-nikeismoik eragabeenak zientziatzat jo ezartzen. Zozo ez diren guztien uestez «nahasketa» horren helburua ez da batera nahasia, eta begi-bistan dago; eta «nahasketaren» ereintza norik egin duen eta zer-tarako, jakina izan behar litzateke. Ezen, gaur eta beti, «qui podrest?».

Bihozkadaz ari gara, halere, be-hin eta berriz. Azterketak egin be-harrean, begiak hetsi eta «aurrera mutiak!». Non da aurrea, ordea? Ez ote gara atzera ari? Ideieki-ko eta gertakarien azterte-beharrare-ki-ko erakusten dugun axolakebe-keria, ureg haurkeriaren neurria da. Oso egoera zailetan haurrak bezala ari arga; guztiz alegiazko mundu batetan biziko bagina be-zaal. Bestela esateko, «ameslariak» bagina bezala. Baina gu geu amet-setan ari baagra ere, besteak ez dira ametsetan ari. Hots, orain dela ehun urte, berrehun, gehiago beharbada, gure herria bihozkadaz ari da.

Gauzak horretan daudelarik, be-raz, eta ideien mailan belar ona eta hiraka berezteko behar gorrian bizi garelarik; nekez gaitzets ne-zeke nik galbahe hertsia erabili nahia. Bada garaia!

Ideen mailan, ordea, lapitza gor-ria horren iaio eskuetan ibiltzea; eta babestu nahi dena segidan eguneroko jokabideen mailan ukat-zea eta erasotzea, zer da? Super «intelektual» batzuek ez dute hau ikusten; edo ez dute ikusi nahi. Aztergaiak lehenabizirik haragi gabetu egiten dituzte; eta gero han, urrutian, Platonen hartulzoan, ideia abstraktoak aztertzen.

Jokabideak, berenez, er dira ego-ki, eta ez desegoki. Jokabide hau gaur egokia izan daiteke, eta bihar kaltegarria; eta jokabide hori, be-ritz, gaur oso desegokia, eta bihar alderantziz zeharo proposa eta fruitukorra. Jaun-eta-jabe dauden jokabideak eta taktikak, horrela, nekez izan dakizkieke on eta ba-liagarri zapalduta daudenei. Augus-to-ren «Pax Romana» hura, nekez zekiekkeen askabide Israelgo juduei.

Alderantziz, bihozkadak eta sasi-azterketak alde batera utziz gero,

hau esango genuke: A jokabide-a goian daudenei ongi badaoike, A hori bera gaizki joango zaiela be-heraan daudenei. Ez dakit argia-rritatzat zer adibide jarri: betaurre-ko paré hau hamar dioptria ditue-nari ongi badaoiko, oso gaizki joan-go zaijo miopo ez denari!

Gure arteko «intelektual» horiek, ordea (kakotzez izkriatzen dugu hori, bai; zeren-eta non dira be-roien izkribuak? Libururik gabeko intelektualak Sokrates-ekin amaitu ziren orain dela 2.500 urte), trabe-netako kirtenak miretsita utzirik, beste muturrean daudenen jokabi-de kopiatu eta berretu egin nahi dute; eta honelatsu mintzo dira: «horiek jokabide horren bitartez azkartu dituk; hortaz gu ere, ber-din jokatu, azkartu egingo gaituk». Eta ari dira, bai; baina noruntz ez dakigula.

Handiago miraria, halere. Ezen etxen gogo-goxo egonik, profesio-mailan nagusi izanik, diruaren alo-rraan dextente irabazirik, istulurik gabeko bizimodua eramanik, eta abar, horrez gain lapitza gorria hartu, eta: «hau ez! hori ez! hura ez! hau motzu behar! ebaki egin behar hori! hari boikotatu egin be-har!». Dena ukatua! Etxea utzi du-tenak, profesioa utzi dutenak, so-sik gabe ari direnak, edonolako lasaipideak oro hankaz gora bota dituztenak, familiarik gabe, etorki-zunik gabe, larribizian azkenean abi-atiu direnak... hutsaren hurrena baitzaizkie gure super «intelektual-oi!» Ez oker daudelako, edo aski burutsu ez direlako; baina berez, garaitu duten Bidezaleek beste bi-de bat hartua dutelako.

Hots, ideia hori, jokabideen gi-daritzat hartua duten ideia hori, funtsean bertan da okerra. Zapal-duen egoera aztertu duten guztiak, guzti-guztiak, ez baitira nahastu. «Rotary» gauza bat da, eta guk be-har duguna beste gauza bat.

Bihozkadaz ari izatea txarra bada ere, hitzontzikeriaz eta eskomizuk ari izatea ez da hobe.

Badakigu, bai; bikaina litzateke arrainak eperdia busti gabe harra-patzea. Baina arrantzaleek diote-nez...

LARRESORO

Klaseak direla eta...

Egun, bai Euskalerriko arazoetan eta baita Euskalerritik at dauden erresumetan ere, asko eta asko idazten eta hitzegiten da gizarte mailaz edo klaseez, klase borro-kaz batipat. Zenbaitentzat, euskal-dun ala erdeldun (ikus bere gar-rantzia), gizadiaren arazo sakone-nak, gizarte maila izate hutsuan finkatzen dira.

Guk ez dugu arazo honen soluzio biderik bitatuko, bere lekuan nahiko ongi dagoelako (ikus Joxe Azurmendiren «Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa»), baizik eta klaseen gar-kotasuna hain nabarmena dela konturaturik, batez ere euskaldun «ezkerrik» batzen artean, klaseez (ohar bezala) zerbaiz adieraztera bakarrik ausartuko gara. Baina, au-rrez, zerbaiz esan beharra daukagu, hots, gizarte mailen definizioa eta klase sozialen bereizkuntzak zehatz mugatzea oso zaila dela.

Gizarte mailen arazoak sakon eta zintzo aztertzeko, Marxengana hur-biltzea aurre baldintza «sine qua non» dela, esanzen nuke. Marxen uka ezinoko merezimenduetarik bat zera izan bait da, gizarte mailak eta gizarte mailen zehaztea nahiz eta, aitortu zuten bezala, bera ez izan heuren asmatzailea. Hala ere badugu beste gisako arrazoirik Marxengana jotzeko: oraindik ere Rikardoren lehenengo pentsakizun hura («Marxismoa modan dago»)

bizirik eta egiaz azaltzen dela gau-riko egunean. Horrela, egun «mar-xologo» asko ditugu, agian gehiegi, Marxen irakasbideak zuzen eta on-do ulertzeko. Hamaikakok, Marxen erakusaldiak zeharo nabarmen al-darrikatuz, haren tesiak aldez, guz-tiz urrutiratzen ditu; alegia, ikusten denez, sasi-marxologoez ere beren leku berezia badutela. Hemen, zen-bait oker besterik, ez duug apaku-tuko.

Zenbaitek, Marxen izgarzte mail-en textu inguruan murgiltzen, ze-lar nabarmetzen du soilik: «gizar-te mailak kondairaren subjektok di-ra, estrukturen eragile klaseak di-ra, ez beste nehor». Hau zitorzea ordea, Marxismoan ez zirik hege-lianismo batetan erortzea litzate-ke. Hegelen idealismoa hurbilago sumatzen da Marxen dotrina baino. Beste batzuk aldez, ez Marx eta ez Hegel baizik eta M. Weber dute beren esaldietako buru, klaseez soilik aldaketaren eragile bihurtzen dituztela ikusirik. Iritzi hauetan garbi ikusten dena zera da: gi-zarte mailak historizismo bostidua-batekin txertaturik azaltzen di-rela, ere gehiago, historizismo hau ez ezik beste joera bat ere ageri dela lehenagokoa baino zabaldua-goa Euskalerrian bederen: ekono-miakaria. Alegia, gizarte mailak produktioaren barnean bakarrik na-barmentzen direla, eta horrela po-

dukzioaren lan haremanek ere ekono-miakaria batetan finkatuta aurkituz. Hau, gure ustez, gehiegi-keria bat besterik ez da. Ez dago ukatzerik, lan haremanek, egun, indar diferentzialak direla, baina, adibidez, hizkuntza ere ez ahal da diferentziala? Honela beste eragile diferentzialik ager dezakegu: bainan, orain, ez gara horretan salatuko...; baizitokak pentsa dezake eta epi-objektibuki.

Marxek, gizarte mailen definizio zehatzik ez emanarren, bere lan itzurrez-arriraren baitan ondorio ba-teratuz jeltz gaitzake:

a) Gizarte mailen sorrera ondo-rio bat dela luntsean, eta ondorio bat delarik, badutela bere sorrere-aren arazoa.

Gizartean eragile politikaz-koak, ekonomiazkoak eta azkenik, ideologiazkoak ditugula, eta gure harreman sozialatan, hirukoitx hon-ek finkatzen duela klasetasuna. Baina, ez dezagun ahaz sorkari hi-rukoitx honak osoki jokatzen duela, alegia ekonomiazko faktore soifa hartzen badugu ekonomia-kerian galduko garelako. Izan ere, baldintza beharrezkoa izateak ez du esan na-hi, bere indarrez bakarrik ondo-riario iritxiko garenik. Adibidez, ura H:O da bainan O mordo batekin bakarrik ez dugu urrik lortuko. Ber-din gertatzen da Marxen gizarte mailen izatean ere.

Hau finkatzeak badu bere garran-tzia: gizarte mailen bereizitasunak hiru adar hauetan azaltzen bait zaizkigu. Klasea ez da politikazko edo ekonomiazko arloan bakarrik agertzen; ez gaitzen errebisio-nismoan eror. Beraz, klaseen eta lan haremanekiko zer ikusia haundia bada, haiek zertean ez da inoiz klaseen ekonomia-keriagatik, glase-en baitan ekonomia-kerian indarragai-tik baizik, eta ez alderantziz, hani-tzek uste duten bezala.

Esan dugun guztiagatik ez dugu ukatua nahi (zertatik?), Marxek aurkitzen duen handienik, gizarte mailen borroka astintzen duena printzipalki alegia, indar emanko-ren edo produktiboen eta lan ha-remanetan finkatzen ez denik.

Gizartean badugu, ahazterik ezin dugun beste kontradizio hanitz ere monismo batetan erortzerik nahi ez badugu. Zeren eta monismoa noiz-kitan dago dialektikaren baitan el-kartua? Monismo batetara heltzeko badago bide egoki bat, zera da: dogmakaria. Eta orrialde batek dio-ena hemen gogoratzea ez dago gaizki: «Eztabaida probetxugarri ba-tetarako bezelaxe azterke zient-ziakoa batetarako ere, alde guztie-tako dogmakeriak erastea da lehen lehenengo baldintza».

IÑAKI PORTILLA



ASTEKARI HONEN JABEA: Nafarroa, Kantauri eta Ara-goiko Kaputxinoen Probint-zia: Mayor, 50 - Burlada - IRIUINA.

ZUZENDARIA: Miren Jone Azurza Aristegieta.

DIRU-ZAITZAILEAK: Kaietana Ezeiza Iturriza eta Jose Luis Orella Lazkano.

DIRU GORA-BEHERAK 1973-garren urtean:

JASOTAKOAK: 3.294.100

ORDAINDUTA-KOAK: 3.272.630

IRABAZIAK: 21.470

Astekari honek ez du azio-nistarririk. Bere ekonomia-kerian iturburu, harpidedunak, sal-mendua eta iragarkiak dira.

Irarkola:

«Graficas Navasal»

A. Adain, 1

IRIUINA